

**MERKATARITZAKO LANGILEEI:****HIRUGARRENEAN LORTU EGIN DUTE**

UGT eta CCOOen ekimenez, eta hirugarren aldian, Merkataritzaren Estatu-esparruko I. Akordioa (AMAC) negoziatzeko mahaia eratu dute.

Negoiazio horren helburu bakarra Merkataritzako langileen baldintzak berdindu eta parekatzea da, beherantz noski.

Labur esanda, gure baldintzak egokitu nahi dituzte Biltegi Handietako Estatu Hitzarmenaren baldintzekin (1770 lanordu eta 800 €). Hori da negoziazio horren asmoa.

**ELAk** bilera horretan adierazi du ez duela estatuko esparrua onartzen, eta hitzarmenean gai horiek guztiak sartzearen kontra gaudela.

Orain arte beste batzuetan ikusi ahal izan dugunez, estatuko esparruan gure lan-baldintzak beherantz berdinduko dira, eta gure lan-eskubideak urrituz joango dira apurka-apurka erabat galdu arte. Galdetu, bestela, DIA, SABECO eta abarreko langileei zer gertatu zaien.

**ELAk**, orain arte egin izan duen bezala, jarraitu nahi du Merkataritzako hitzarmenak negoziatzen gure sindikatua dagoen lau herrialdeetan (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa). Beste sindikatu batzuek ezin dute gauza bera esan, eta probak agerikoak dira.

Badirudi UGTk eta CCOOek zirikatu gura gaituztela, haiek proposatu baitiote patronalari estatu-hitzarmen bat negoziatzea, asmo bakar batez: probintzia-mailako hitzarmenak desagerraraztea.

Galdetu behar diegu UGT eta CCOOeko ordezkariari zergatik bipildu nahi dituzten gure sakelak, eta urte askotako borroketan lorturiko eskubideak ezabatu, orain arteko baldintzak hainbeste apaltzen dituen hitzarmen hori estatu-esparruan negoziatuz.

Merkataritzako probintzia-hitzarmenen alde agertu behar gara ausardiaz, eta hori ELArekin bakarrik egin dezakezu.

Eta esan behar dizuegu, amaitzeko, egin nahi diguten itxura ederreko "opari" horren barruan pobrezia eta prekarietatea besterik ez dagoela Hego Euskal Herriko Merkataritzako langileontzat.

**MERKATARITZAREN PROBINTZIA-MAILAKO HITZARMENEN ALDE.  
MERKATARITZAN BORROKA!!!**

**Seguiremos informando / Informazioa ematen jarraituko dugu**